

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 216. alea - 2017ko martxoa

A close-up portrait of a woman with short, dark brown hair, smiling warmly at the camera. She is wearing a light-colored blouse with a colorful floral pattern. The background is dark, making her face the central focus. On the left side of the image, there is a white, jagged, lightning-bolt-like graphic element.

GETARI ETXEGARAI
aktore eta zuzendaria,
gertutik



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afarriak: 20:00 / 23:00

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



SO URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean traçoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

kutxabank
hemen
eta orain **k**



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95




Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tef.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

 No. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunidadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14
943 19 24 42
sasoiiko@hotmail.com

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Euskal Udalekuak”,
“Puntu ilunak”, “Noiz
uzten dio kirolak
dibertsio izateari?”

06

ERREPORTAJEA

Amagandiko
edoskitzea sustatu
nahian Debarrena
eskualdean

09

ALBISTEAK

Debako gazteen
kooperazio proiektua
saharar errefuxiatuen
kanpamenduetan

12

LABURRAK

Korrika Kulturala,
Reus eta Deba arteko
topaketa, Itziarko Auzo
udalaren urtemuga...

14

B. GAZTEA

Adimen urritasunari
buruzko hitzaldia,
elkarrizketa Unax
Arrizabalagari...

Zuhatzak martxoaren 31n egingo du batzar orokorra

Zuhatzakide agurgarria:

Lerro hauen bitartez, urteko Bazkideen Batzar Orokorrerako deialdia egiten dizugu. Bertan, 2016. urteak eman duenaren berri eman eta etorkizunerako ditugun asmoak zurekin (BAZKIDE) konpartitu eta adostu nahiko genituzke.

Batzarra datorren martxoaren 31n (ostirala) egingo dugu, arratsaldeko 18:00etan, Zuhatzaren bulegoan (Ifar

kalea 12, behean). Bertan, 2016ko gestio-balantzea azaldu eta 2017rako aurrekontuak eta egitasmoak izango ditugu hizpide. Elkarteko zuzendaritza batzorde berria ere bertan proposatuko dugu.

Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamikari jarraipena eman ahal izateko, Zuhatzak behar-beharrezkoa ikusten du elkarteko bazkideon inplikazioa eta babesa. Hitzordura hurbiltzerik ez baduzu, zure proposamen, kritika edo irado-

kizunen berri emateko Zuhatzaren bulegotik pasa edo gurekin harremanetan jarri (943 19 13 83 telefono zenbakira deituta edo koordinatzailea@zuhatza.com helbidera idatzita).

Hurbil zaitetz Zuhatzara, atea zabal-zabalik dituzu! Besterik gabe, martxoaren 31ko batzarrean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaitugu.

Zuhatza Euskara Elkarte

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatzak
Euskara Elkarte Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikako Saiburordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbiet, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri


Tirada: 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Euskal Udalekuak: Goñi, Abaigar eta Bernedo



Badira hainbat urte euskal udalekuetako etxeen atea zabaldu genuela. Hainbat urte Goñi, Bernedo eta Abaigar ezagutu genituela eta haurrak izanda, gerora ere, euskal udalekuetan jarraitzea erabaki genuela.

Euskal udalekuen bidean sorturiko esperientziatik, hainbat balore bereganatu ditugula jabetzen gara gaur egun, zeintzuek gure egunerokotasunean benetako garrantzia eta eragina duten. Ikasi dugu ondokoa errespetatzen, laguntzen, parekidetasunean bizitzen,

ingurua zaintzen eta maitatzen. Eta, nola ez, euskaraz jolasten, bizitzen eta gozatzen.

Euskaraz dugu udalekuen ardatz nagusi. Ekintzen eta jolasen bitartez, euskaraz bizitzea posible dela ikusten dugu udalekuetako egunetan zehar. Gainera, Euskal Herri osoko ume eta hezitzaileak bertaratzek aberastasan handia ematen die udalekuei: euskalki aldetik, bizipen aldetik...

Hiru herri txiki hauek natura ingurunean kokatuta daude eta horrek, denok (haur eta hezitzaileok) naturaz gozatzea ahalbidetzen digu. Mendi martxak, basoan jolasak, bainuak...

Giro ederra sortzen da kide guztien artean, harreman parekideak elikatuz. Udalekuak, orokorrean, lagun berriak ezagu-

tzeko tresna paregabea dira, harreman sakon eta ahaztezinak egiteko leku ezin hobea.

Berebiziko garrantzia dauka udaleku hauek aurrera ateratzeko ematen den boluntario sareak. Garbi daukagu maite dugulako egiten dugula, gozatu egiten dugula eta udalekuetako une bakoitza gure baitan gordeko dugula.

Beraz, hemen duzue, 7-15 urte bitarteko ume eta gazteoi zuzendua, euskaraz gozatzeko udalekua. Martxoaren 6tik aurrera, animatzen zaituztegu euskal udalekuetan izena ematera eta gure zelai zabalean zuen lorea landatzera. Informazio gehiagorako eta izena emateko: www.udalekuak.eus edo 943905766.

Euskal Udalekuetako hezitzaileak

Puntu ilunak

Genero ikuspegia oso gogoan erabiltzekoa da, pertsona guztiok eremu eta zerbitzu publikoetarako sarrera, gozabide eta ibilbide berberak izango ditugun herri, auzo eta hiriak antolatzeko orduan. "Emakumea Hirian Europako Gutuna" k argi adierazten duen bezala, beharrezkoa da hiria planteatzerakoan hiritarren, emakume nahiz gizonen, beharrianak eta bizi-aukera ezberdinak kontuan hartzea.

Debako emakume eta gizonen ustez nola gaude segurtasunari dagokionean?

Segurtasuna hobetzeko, oso garrantzitsua da ilunguneak argi bihurtzea. Ifar kaletik Mogel kalera doan oinezkoen bide aldapsua dugu ilungune horietako bat, toki bereko igo-gailuaren inguruan dagoena, hain zuzen.

Urte eta erdi daramagu bide hau zabaldu zenetik. Bertatik jende asko pasatzen da egunero. Arazo honi irtenbidea emateko, iruditzen zaigu gune edo puntu ilun hau lehenbailehen argiztatu beharko litzatekeela.

*Puri Gomez eta Marifran Agirregabiria,
Mogel kaleko bizilagunak*

Noiz uzten dio kirolak dibertsio izateari?

Bada, helduak tartean sartzen direnean. Irabazteko lehiatzen, elkarrekin beharrean elkarren kontra jokatzeko, aurkaria zapaltzeko eta jokoaren arauak ez errespetatzeko, helduon-gandik ikasten dute haurrek. Eta goizegi!!

Ikuskizun tamalgarriak izaten dira umeen zentzuetan. Guraso batzuk garrasika,

irainka, hasten zaizkionean arbitroari, aurkariari, entrenatzaileari eta, huts eginez gero, baita seme-alabaren taldekideei ere. Eredu lehiakor horren barruan, hobea izateko presioa eta gorroto-iturri bilakatzen da kirola txiki-txikitik, gaiztotutako giro batean.

Ezagutzen dugu goi mailako kirolaren

alde iluna, atzean dagoen diru-festa, emaitzen menpe bizi diren kirolariak eta dopinaren itzala (ez kasu guztietan, noski).

Baina gutxienez haurrak diren bitartean, balore positiboetan hezteko eremu ludikoa izan beharko luke kirolak, ze demontre!

Marian Larrañaga



MAITE RODRIGUEZ

Errinozero adarrak

Astelehen gauean isileko ehiztari talde bat Paris inguru-ko zoo batera sartu, errinozero bat tirokatu, eta bolizko adar bat moztu zioten, merkatu beltzean saltzeko. Bigarren adarra erdi moztuta bertan lagata ihes egin zuten (motozerra hondatu zitzaielako edo atzeman zituztelako? Batek daki).

Vietnamen eta Txinan errinozero adarrak minbizia sendatzeko, kokaina antzeko droga gisa, norberaren aberastasun sinbolo erara eta astelehena sendatzeko erabiltzen omen dira eta sekulako prezioak ordaintzeko prest daude bezeroak. Kolekzionista pribatuek ere erosten dituzte beste hainbat herrialdetan. Errinozero adar kiloa 50.000-60.000 euroan saltzen omen da eta adar bakoitzak kilo batetik hirura pisatzen ditu.

Afrikan bi errinozero espezie daude, zuria eta beltza. Duela 150 bat urtera arte milaka bizi ziren sabanan, ehiztari europarrak iritsi ziren arte. Bi espezieak desagertzeko arriskuan zeuden, baina, kontserbazio ahalegin itzelei esker, populazioak handitzea lortu zuten. Azken urteetan, hala ere, errinozero kopuruak berriz ere murriztu egin dira, isileko ehiztariak urtean mila errinozero pasa hiltzen dituztelako, adarrak mozteko.

Europar ere errinozero adar lapurretak salatu dituzte azken urteetan, Portugaldik Suediaraino. Europolek orduan adarrak hobeto babesteko gomendioa eman zuen eta adar batzuk (askotan errinozero buruan bertan disekata) museoetatik erretiratu zituzten. Lapurretek jarraitu egin zuten, ordea. 2013an, 200.000 euro inguru balio zuten errinozero adarrak lapurtu zituzten Dublingo Historia Naturaleko museo-ko biltegitik. 2014an Riverdance-eko Michael Flatley-ri, etxean zego-

ela, lapurtu zioten bertan zeukan errinozero adar bat. Europolek mafia irlandar baten susmoa zeukan eta 2016an 14 lagun atxilotu zituzten, 70 milioi euro errinozero adarretan saltzearen.

Afrikan askoz errinozero gehiago daude arriskuan, baina etxean daude, aske. Ihes egiteko aukera txiki bat daukate. Baina hemen? Parisko errinozeroa Herbehereetako zoo batean jaio zen, sekula sabanan egon gabea, baina bere lehengusu eta lehengusina asko bezala ehiztarien eskuetan hila. Bere bizitzan berdintasuna eduki duen momentu bakararra heriotza izan zen.

Zooak aspalditik eraiki izan ditugu. Faraoen garaian Egipton, eta Kristo aurreko 1000. urteko zoonen aztarnak topatu omen dituzte arkeologoek. Europan, 1800 inguruan hasi ziren zooak zabaltzen, viktoriarrek inperio britainiarreko txoko ezberdinetatik gauzak ekartzea eta erakustea modan jarri zutenetik.

Nire ustez, zooak ez dira batere etikoak, animalia exotikoak beraien ingurumenetik atera, kaiola moduko batean sartu eta animaliak jendeari erakustearren etekina ateratzen dutelako. Kontserbazio lanak egiten dituztela esaten dute, baina egia esan, animalia potxoloak eta politak hautatzen dituzte, eta ez laguntza beharrean

dauden animalia autoktonoak. Gazako zooan animalia pila hil ziren gosez, bonbardaketak hasi zirenean langileek, 3 astetan, sarterik izan ez zutelako. 2015ean Georgian, uholdeak gertatu zirenean, zooko animalia batzuk itota hil ziren eta beste batzuek ihes egin zuten. Lehengo urtean, 3 urteko mutiko bat gorilen gunera erori zenean, Harambe tiroz hil zuten. Zoor joatea baino, dokumental bat ikustea ez al da ba hobeto?



Debabarrena eskualdean amagandiko edoskitzearen sustapena

Edoskitze edo laktantziaren aldeko nazioarteko proiektu baten baitan dago Debabarrena ESI erakundea

Amaren esnea haur batek bizitzaren lehenengo 6 hilabeteetan behar duen elikadurarik onena da, haurrari behar nutricional, immunologiko eta emozional guztiak betetzen baitizkio. Mundu mailan garrantzia handiko osasun erakunde anitzek (OME, UNICEF, IHAN) ebidentzia zientifiko handia aurkezten duen aholku hau babesten dute.

Horregatik, Debabarrena ESI (Erakunde Sanitario Integratua) amagandiko edoskitzea bultzatzen dugu, amak ahaldunduz amagandiko edoskitze eraginkorra, zoriontsua eta iraunkorra lor dadin. 2015etik Debabarrena ESI amagandiko edoskitzeari buruzko nazioarteko proiektu (BPSO-RNAO) baten barruan dago, eta zainketen bikaintasunarekin konprometitutako zentroetako bat izatera pasa da, pazienteen zainketak ebidentzia zientifikoan oinarriturik baitaude. Proiektu honetan diziplina anitzeko langileek (erizainek, laguntzaileek, emaginek, pediatrek, ginekologoek, fisioterapeutek) lan egiten dute, amagandiko edoskitzea sustatzeko helburu komunearekin.

AMAGANDIKO EDOSKITZEAREN ONURAK

• AMARENTZAT:

- Umetokiari bere tamainera itzultzen laguntzen dio eta odol-galerak murrizten dira.
- Gorputzaren pisuaren berreskuratze hobea.
- Bularretako nahiz obarioetako minbiziazaren eta osteoporosiaren arriskua gutxitzen da.
- Amagandiko edoskitze esklusiboak antisorgailu-metodo (MELA) gisa balio du.

• HAURRARENTZAT:

- Euren beharretara egokitutako elikadura.
- Garapen kognitiboa nahiz zentzumen-garapena sustatzen ditu.
- Arnasbideetako nahiz digestibideetako infekzioak, gaixotasun atopikoak eta bat-bateko heriotza murrizten ditu.
- Honako arrisku hauek murrizten ditu: obesitatea, asma, alergiak, diabetesa, hipertentsioa, txantxarra...

Zer gertatzen zaigu amatasunaren lehenbiziko egunetan?

Ospitaleko lehen egunak inork kontatu ez digun oztopo-lasterketa baten gisakoak dira batzuetan; nekeza izan daiteke, baina gaindi daiteke. Inoiz ez dugu ahaztu behar erditu berri gaudela, deseroso, mindu, anemiko egon gaitezke, baita lo faltan ere edota bisita gehiegi edukita... ez gaude gaixo, baina onartzea kostatzen zaigun prozesu fisiologiko bat da.

Gure haurra sortzen denean, garrantzitsuenak **persona batekiko lotura eta elikadura** dira. Gure haurra ukimenaren eta usaimenaren bitartez gai da bere ama ezagutzeko, mugitzeko eta koordinatzeko gaitasuna du bularrera iristeko, burua altxatzeko, bere amari begiratzeko, eta azkenik, elikatu ahal izateko hurrupatze-irenste-arnastea koordinatzeko gai da. Hori guztia gerta dadin haurrak bere habitatean egon behar du, eta horregatik **“azal-azal ukipena” (AAU)** sustatzen dugu.

Azala azalarekin egotea erditze-gelan edo solairuan gutxienez lehenengo 120 minututan egin ohi da. Denbora



ESIk pediatra Patricia del Rio eta Maribel Lopez, amagandiko edoskitzearen erizain arduraduna.

horretan egiten du haurrak amagandiko lehenengo edoskitze saioa (izan ere amak jada oritza iraitzen baitu, eta hori haurraren lehen txertotzat hartzen da). Biak goxo-goxo egotearen onurengatik, bikotekideak ere egin dezan animatzen dugu, ama atsedean hartzen ari denean edo banaketa bat dagoenean.

Azala azalarekin egotearen onurak:

- Arnas-maiztasuna, bihotz-taupaden maiztasuna, tenperatura, oxigeno-asetasuna eta haurraren gluzemia egonkortzen ditu.
- Amaren tenperatura egonkortzen du.
- Aurreragoko tristura puerperala ekiditen du.
- Haurraren nahiz amaren estresa gutxitzen du.
- Interbentzio medikoengatik haurraren minak gutxitzen ditu.
- Amaren eta haurraren arteko interakzioa handitzen du.
- Amagandiko edoskitzearen probabilitatea eta iraupena handitzen du.

Zenbat jan behar du jaioberri batek?

Eskaeraren araberako edoskitzea bultzatzen dugu: garrantzitsua da gurasoek gosearen nahiz bilaketaren seinaleak identifikatzea (ahoa zabaltzea, ukabilak zurrupatzea, burua jiratuz bilatzea), esnearen hartze, hurrupatze eta pasatzearen seinale onak.

Zer hartu behar da kontuan bizitzaren lehen egunetan?

Lehenengo egun hauetan garrantzitsua da **bisitak kontrolatzea**. Jende gutxi ohartzen da zeinen garrantzitsua den lehenengo egun hauetan bizitzaren hastapena ahalik eta erosoena izatea, bai amarentzat bai haurrarentzat, eta horregatik, kartelak ere egin dira bizitzaren lehenengo egunen intimitatearen errespetua sustatzeko, izan ospitalean izan etxean. Egokiena da amak haurraren erritmoa jarraitzea.

Zein da bikotekidearen egitekoa?

Bikotekidearen laguntza haurdunaldiaren hasieratik



garrantzia handikoa da. Bikotekide askok ez daki nola jokatu bere haurrarekin eta amarekin, baina amaren nahiz haurraren ongizatean lagun dezakete, ingurunea lasai eta bare egon dadin zainduz.

Garrantzitsua da ama garen aldetik guran konfiantza izatea, nahiz eta zalantzak izan nola eta noiz bularra eman. Edoskitzea arrakastatsua izan dadin, hasiera oso garrantzitsua da eta hori lortzeko laguntza-baliabideak ditugu.

Maribel Lopez eta Patricia del Rio



Edoskitze-tailerra Deban eta "Maitasunez Hazi" laguntza taldea Elgoibarren

Etxean nago eta orain, zer?

Etxera iristea une delikatua da, eta emakumearen bizitzan aldaketa handi bat onartzea esan nahi du, eta haurraren beharrendaren eta amaren beharrendaren arteko lehen gatazkak sortzen dira.

Ospitaleko senda-agiria hirugarren egunean eman ohi da, eta askotan esnea igotzearekin nahiz erditze ondorengo hormona aldaketekin dator; hau da, alde batetik, amaren esnearen ekoizpenean eta osaketan aldaketak sumatuko ditugu, eta bestetik, nekatuagoak eta zaurgarriagoak sentituko gara. Aldaketa horiek amagandiko edoskitzean konplikazioei bide ematen diete, eta ebidentziak diosku abordatzeko nahiz jarraipenak edoskitzea egoki betetzean eta irautean eragingo duela.

Zein laguntza ditugu eskura?

Zainketa osoen egitasmo baten parte bezala, eta ama nahiz haurren osasunaren alde lan egiteko konpromiso profesionalaz, osasun-zentroetatik jasotzen duten laguntza eta informazioa indartu nahi dugu edoskitze-tailerrekin. Horiek amaren erditze ondorengo heziketan sartuko dira, baita osasun-zentro bakoitzeko emaginarekin hitzordua ere senda-agiriaren ondorengo lehenengo 72 orduetan.

Lehenengo **edoskitze-tailerra** Debako osasun-zentroan abiatuko da, asteazkenetan 12:00etatik 13:30era, Elisa Fernandezek (emagina) gidatuko du tailerra, eta eskualdeko edozein ama bertara daiteke

aurretik izena eman beharrik gabe.

Gure eskualdeko beste baliabide esku-ragarri bat: **edoskitze eta hazierarako laguntza-talde bat** dugu "Maitasunez Hazi" deiturikoa, esperientzia duten amen talde batek osatzen du, eta Elgoibarko kultur etxean elkartzen dira hileko lehen asteazkenetan (18:00), eskualdeko ama orori zabalik eta doan, aurretik izena eman beharrik gabe bertara daiteke.

Aurki, gizartean praktika osasuntsu hau zabaltzeko gogoz, iragan udazkenean ESIk antolatutako amagandiko edoskitzearen I. lehiaketako parte-hartzaileen argazkiekin erakusketak jarriko dira. Lehen erakusketa Elgoibarko Kultur etxeko sotoan izan da (martxoaren 14tik 18ra), gero Eibarren, laster Deban eta eskualdeko beste udalerrri batzuetan.

Elisa Fernandez




Elisa Fernandez, Deba-Mutrikuko emagina.



Edoskitze eta hazierarako laguntza-taldea Elgoibarren biltzen da hileko lehen asteazkenetan.





Debako gazteen kooperazio proiektua saharar errefuxiatuen kanpamenduetan

17 urteko 8 gazte gara eta 2015eko irailean, duela urte eta erdi, Saharako errefuxiatuen esparruetako biztanleekin proiektu solidario bat aurrera eramateko dirua lortzen hasi ginen, astero-astero Gaztelekuan bilduz, bertako hezitzaileen laguntzaz. Aurtengo Aste Santuan 10 egunetarako Saharara joatea da gure asmoa, Euskal Herriko Frente Polisarioko ordezkariak antolatzen duen ELKARTASUN BIDAIA.

Duela bost urte gazte talde batek Gaztelekuarekin batera Saharara egindako bidaiaren harira etorri zitzaigun burura ideia hau. Bidaia hura oinarritzat hartuta, eta Aljeriako basamortuan babestuta dauden sahararrei laguntzeko asmoz, gure bidaia antolatzen hasi ginen, ekintza desberdinen bidez dirua lortuz.

Bertan bi proiektu burutu nahi ditugu: ur depositu berriak instalatu eta barazketan lagundu.

Etxeetan ur depositu berriak instalatzea momentuan duten behar handienetako bat da, orain instalatuta dauzkaten deposituak guztiz herdoilduta, zulatuta eta kutsatuta daudelako.

Harrigarria dirudien arren, sahararrek urteak daramatzate basamortuaren erdian baratzak egiten. Jada, 900 famili-baratzak sortu dituzte. Honela, emakumeen nekazaritza eskolan lan egingo dugu.

Gure bidaiaren helburu nagusiak dira Saharako familien bizi-kalitatea ahal dugun neurrian hobetzea eta, era berean, pertsonak, bereziki emakumeak, proiektuaren garapenean parte har dezaten bultzatzea. Debarron kontzientziazioa sustatzea ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu, Saharako kanpamenduen egoera zein den adieraziz eta herritarrak inplikatzuz.

Hau guztia dela eta, herritarrok laguntzera animatzen zaituztegu: ambulatorio eta ospitaletarako elementuen eta eskola



materialen bilketa bat antolatuko dugu (beheko koadroan zehaztu dugu beharrezko materiala). Elgoibar eta Mutrikuko institutuetan, Luzaro eskolan eta martxoaren 25ean udaletxe azpian egongo gara eta bertan ahalik eta material gehien lagatzea eskertuko genizueke. Horrez gain, herriko botiketan ere izango duzue medikamentuak uzteko aukera.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, eskerrik asko; bidaiaren bueltan izango duzue informazio gehiago.

Eskutik Eskura taldea eta Debako Gaztelekua

Eskola materiala: Koadernoak, boligrafoak, arkatzak, borragomak, zorrozkiak, arbeletarako klerak, kirol materiala...

Anbulatorio eta ospitalen horniketa: Paracetamola eta antzeakoak, tiritak, gasak, bendak, Betadine, erredurentzako pomadak, konpresak, pardelak...

“Bidali SMS bat eta lagundu irabazten”

Mundukide fundazioak eta David Zurutuza futbolariak SMS kanpaina jarri dute abian “Lagundu irabazten” lelopean, Mozambikeko nekazarien egoera ekonomikoa indartzeko helburuarekin. Apirila bitartean egongo da kanpainarekin bat egiteko aukera eta, beste hainbat kirolari ezagunekin batera, Asier Riesgo Eibar taldeko atezain debarrak ere bat egin du ekimenearekin.

Hamabost urtetik gora daramatza Mundukidek Mozambikeko nekazarien garapen sozioekonomikoa indartzeko lanetan. “Arrakastaren oinarria, errepideak eta ureztapen sistemak hobetzea, nekazariei zuzendutako

mikrokreditu sistema ezartzea eta nekazal tekniken optimizazioa izan da”, azaldu du fundazioak.

“Mozambike iparraldean nekazaritza da jarduera nagusia, bizi itxaropena 55 urtekoa da eta familia askok 100 euro baino gutxiago izaten ditu urte osorako. Jadanik badira 80.000tik gora pertsona onuradunak. 2016an programak egindako inbertsioa 973.645 eurokoa izan zen eta nekazariak lortutako ekoizpenaren balioa, berriz, 4.000.000 eurokoa. Beraz, zuk inbertitutako euro bakoitzaren balioa laukoiztu egiten da baserritarren eskuetan”.

SMS batekin taldekide izateko gonbitea luzatu du fundazioak. MUNDU-



KIDE hitza bidali behar da 28014 zenbakira eta, hori eginda, 1,20 euroko ekarpena egiten diozu kanpainari.

Informazio gehiagorako: www.mundukide.org.

GETARI ETXEGARAI TURRILLAS

“Telebista eta zinema asko gustatzen zaizkit, baina antzerkiak sentiarazten dizuna bezalakorik ez dago”

“Ama eta aktore/zuzendaria naizela esan dezaket gehienbat, baina denbora dudanean bikote eta lagun ona izatea ere asko gustatzen zait”. Hitz horiek bota dizkigu Getari Etxegarai Turrillasek (Gasteiz, 1981) elkarrizketa honen hasieran bere burua aurkezteko.

Donostia eta Deba artean hazi eta hezi zen, baina Bilbon bizi da azken hamabost urteotan. Antzerki munduan 17 urterekin hasi zenetik, gelditu gabe dabil hamai-ka saltsa eta proiektutan: aktore moduan, zuzendari lanetan, antzerki irakasle... Bere ibilbideaz eta egungo proiektuez mintzatu zaigu elkarrizketa honetan eta berri ona ere eman digu: maiatzean dator Debara, ohol-tza gainera igotzera oraingoan.



Noiz eta nola sartu zinen antzerki munduan?

Institutuan nengoela ETBn saio bat egi-tea proposatu zidaten, hamazazpi urte nituen eta nire ametsa egi bihurtzeko aukera eman zidaten. Orditik gelditu gabe egon naiz ikasten eta lanean, beti antzerkiaren inguruan; 36 urte ditut, atera kontuak.

Zelan gogoratzen dituzu hastapenak?

Ilusio eta emozio handiz. Geroago, gora-beherak etorri ziren eta lanbidearen zailtasunak ikasi nituen, baina sekula ez dut etsi, gehiegi maite dut lanbide hau.

Atzera begira jarri garen honetan... 2001eko ekainean, Euskal Aktoreen Batasunak euskal aktore onenei eskaintzen dizkien Jokulari sarietako bat (errebelazio saria) jaso zenuen. Zelan oroitzen duzu une hura?

Ez nuen espero, guztiz engainatuta eraman ninduten gala hartara, eta nire izena entzun nuen momentutik lehen ardoa hartu nuen momentura ez dut gehiegi gogoratzen, shock moduko bat sufritu nuen eta derrigorrezko esker guztiak gerora eman behar izan nituen, prentsa eta elkarrizketen bitartez, desastre bat.

Alde batetik bestera ibili zara harrezkero,

hamaika proiektutan murgilduta. Zinema, publicitate, telebista, antzerkia... zer esparrutan sentitzen zara erosoan?

Telebista eta zinema asko gustatzen zaizkit. Gainera, diru gehiago ematen dute eta erosoago bizitzeko aukera eskaintzen dute, baina antzerkiak sentiarazten dizuna bezalakorik ez dago ezer.

Aktore izatetik zuzendari izatera ere pasa zara. Nola eman zenuen pauso hori?

Hamabi urte daramatzat antzerki klaseak ematen eta antzerkiak idazten eta zuzentzen ume eta gurasoentzat. Argi zegoen lehenago edo beranduago pausoa eman-go nuela, gorputzak eskatzen zidan eta benetan beharrezkoa zen aurrerapauso hori profesional moduan hazteko ere.

Zer nahiago: ohol-tza gainean antzezteak ala aktoreak zuzentzea?

Orain oso gustura nago zuzentzen, fazeta berri honekin asko disfrutatzen dut, baina ikasteko asko daukat oraindik, eta ohol-tza gainera igotzeak sorrarazten dizun zirrara hori faltan botatzen da batzuetan. Batak zein besteak asko betetzen naute, eta guztia egiteko aukera dagoen bitartean, zertarako aukeratu?

Antzerki irakasle gisa ere bazabiltza gaur egun. Zer moduz?

Asko gustatzen zait, lanbide honek merezi duen errespetua txikiei transmititzea ez da gutxi, etorkizuna dira eta gure kultura haien eskuetan egongo da hemendik gutxira; derrigorrezkoa iruditzen zait gure txikiak kulturen hezteak. Haiek oso serio hartzen dute, benetan kantera izugarria datorkigu. Eta nagusiak ere oso esku-zabalak dira, asko ikasten dut nik ere haiengandik.

Antzerki munduan bizirauteko tresna da zuretzat (irakaskuntzarena)?

Erabat, lan gutxiago eduki dudanean honek salbatu nau.

Zein da aktore ogibidearen alderik politena?

Beste pertsonai batzuen azalean sartzea esan nezake, klasiko bat da eta egia osoa ere bai. Baina, batez ere, nire kreatibitateak eta buru zoro honek etengabe sortzen dituen istorioei irtenbide bat bilatzea derrigorrezkoa da, bestela erotu egingo nintzateke; horretarako balio dit niri, dudarik gabe.

Eta desatseginena?

Askotan denbora asko pasatzen dudala etxetik kanpo eta pixka bat “a kontra korriente” joaten naizela, besteek jai dutenean ni lanean nagoela eta alderantziz.

Zein garrantzia ematen diezu kritikei?

Lanaren inguruan, kritika konstruktiboan aldekoa naiz, beharrezkoak iruditzen zaizkit, hobetzeko balio duten horiek altxorak izan daitezke, baina kritikatzeko kritikatzegatik... Eta eremu pertsonalean badakit kritikatuia izan naizela noiz-bait, beti nahi izan dudana egin izan dudalako eta askotan jendea ez zaizkio diferentziak gustatzen, baina larrua gogortu didaten horiei guztiei eskerrak eman behar dizkiet orain. Nire printzipioak argi ditut eta lehenetsunak ere.

Emakume aktorea. Eta bi semeren ama. Zaila egiten al zaizu familiarteko bizitza eta lanekoa uztartzea?

Beti esan izan dut dirua dagoen bitartean ez dagoela arazorik, baina zure lanbidea horrenbeste gustatzen zaizunean eta ezin duzunean zure burua beste ezer egiten ikusi, askotan, debalde lan egitea tokatzen zaizu eta orduan bai, konplikatu egiten dira gauzak eta aitona-amonak sartzen dira jokoan, edota bikotearen lan egonkor hori eskertzeko momentua.

Zailtasun edo oztoporik izan al duzu antzerki munduan emakume izateagatik?

Kontuan izanda sortzen diren pertsonai gehienak gizonezkoak direla eta askoz ere emakume gehiago daudela lanbide honetan gizonezkoak baino (horra paradoxa!), askotan ez da erraza izan, baina horretarako ikasi behar dugu autosufizientziaz izaten eta guretzako lana sortzen, emakumeentzako lana sortzen. Eta amatasunaren edo fisikoaren inguruan ere arituko nintzateke gustura, baina horrek beste elkarriketa oso baterako emango liguke. Feminista izatearekin ez dela nahikoa

konturatu naiz azken boladan eta ez dakit zein den hurrengo pausoa.

“Mami Lebrun” ikuskizuna (Xake produktioak). Hiru aktore oholta gainean eta zu zuzendari lanetan. Azkenaldian batetik bestera zabilzate obrarekin -Eibarko Antzerki Jardunaldietan egon berri eta, besteak beste, maiatzaren 5ean Zumaian egongo zarete...-. Zer moduz orain arteko harrerarekin?

Izugarrria, benetan harrituta gaude izandako harrerarekin, ez genuen espero horrenbesteko arrakasta eta pozez leheritzen gaude. Bihotzetik egindako pieza umila da, baina oso mezu ederrarekin. Jendea hunkitzea ez da erraza eta lortu dugu; beraz, harro.

“Derrigorrezkoa da kreatibitateak eta buru zoro honek etengabe sortzen dituen istorioei irtenbide bat bilatzea. Bestela erotu egingo nintzateke”

Era berean, “Erbeste edo saihesten baten aldarrikapenak” (Anodino Teatro) obra ere antzezten diharduzu, Aitor Fernandino-rekin batera. Poltsiko Antzerki Sorkuntza lehiaketaren aurtengo edizioko komedia irabazlea izan da. Zorionak!! Pozik?

Oso, obra horretan bai, aktorea moduan nabil aspaldiko partez. “Gusanilloa” kendu dit eta Aitor bezalako lankide batekin oso erraza da dena.

Zer kontatzen du antzezanak?

Gaia gaur egun pil-pilean dagoen gai bat da, emakumeen eskubideen inguruan hitz egiten dugu eta matxismoaren jatorriaz, eta adi! erruduna aurkitu dugu eta!! Baina dena oso puntu dibertigarri eta surrealista batetik.

Deban edo inguruetan ikusteko aukera izango dugu?

Deban ikusteko aukera izango duzue, bai, maiatzaren 12an, Kultur Elkartean, ez galdu!!

Urduriago jartzen al zaitu zure lana zure herrian erakusteak?

Urduri? Ba bai, baina ez besteetan baino gehiago, etxean jolastea beti da erosoagoa eta asko poztzen nau Debara bueltatzeko.

Aurrera begira, bestelako proiekturik esku artean?

Asko, inoiz baino lan gehiagorekin nago. Aurten aktore moduan egongo gara Mikel Losada eta biok, Ramon Barearen zuzendaritzapean, eta proiektu potolo bateko zuzendari izatea ere eskatu didate. Eta hurrengo urterako beste bi gauza ere baditut hortik dantzan.

Galdetu ez dizugun zerbait nabarmendu nahiko zenuke, Getari? Zurea da hitza!

Ba bai, hemezortzi urterekin egon nintzen azkeneko aldiz Deban obra batekin eta orain arte ez dut aukerarik izan. Horrek pena ematen dit. Debak ganorazko antzoki bat merezi duela uste dut, badagoelako betidanik herrian antzerki kultura handia eta lastima bat da. Eta hemendik muxu bat Goaz antzerki taldearentzat, eutsi!!!



*“Mezedonia”
Night Show,
Arimaktore
Barakaldon.*



*“Vuela Bruna”
umeentzako
antzerkia,
Pabilioi 6
gunean.*



*“Erbeste” poltsiko
antzerkia,
Tabakaleran.*

Martin Hernandez Beitia, zazpigarren Espainiako txapelketan

Sabadellen martxoaren 11-12ko asteburuan jokaturako Pista Estaliko Espainiako Gazte Mailako Atletismo Txapelketan parte hartu zuen Martin Hernandez Beitia debarrak, 1.500 metroko lasterketan. Bigarren postua lortu zuen lehen finalerdian, 04:12.33ko denbora eginda, eta finale-rako sailkatzea lortu zuen. Finalean, berriz, min hartu eta zazpigarren postuan geratu zen, 04:20.98ko denborarekin. Mintxeta Atletismo Taldeko ordezkari da korrikalari debarra.

Oier Lazkano garaile txirrindulari proban

Elproex-Iturribero taldeko Oier Lazkano nagusitu zen martxoaren 4an jokaturako junior mailako lasterketan. Proba 135 parte-hartzailek hasi bazuten ere, horietako 52k lortu zuten 86 kilometroko ibilbidea osatzea. Oier Lazkanok 2:12:19ko denborarekin lortu zuen garaipena. Bigarren postuan Unai Iribar sailkatu zen, eta Ibon Ruiz izan zen hirugarrena.

Amaiak Bat Txirrindulari Taldeak antolatutako bigarren hitzordua martxoaren 25ean jokaturako da. Emakumezkoak arituko dira lehian, hiru kategorietan.



Bi hitzaldi burutu dira Korrika Kulturalaren baitan



Konturatu orduko iritsiko da apirilaren 5a (asteazkena), 20. Korrika Debatik pasako den eguna. Data hurbiltzen doan heinean, lasterketa herrikoia prestatzeko lanak ere aurrera doaz eta, beste hainbat herritan bezalaxe, Deban ere Korrika Kulturala abian dago jadanik.

Korrika Kulturalaren baitan antolatutako bi hitzaldi burutu dira jadanik, biak ala biak Ehbilduren ekimenez. Euskal sinismen zaharrak hizpide har-

tuta, lehen hitzordua martxoaren 3an egin zen. Gurutz Garmendia eta Aitor Puy aritu ziren hizlari Agirre jauregian. Bigarren hitzaldia, berriz, hilaren 15ean izan zen; Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel izan ziren gonbidatuak, euskara eta feminismoari buruzko solasaldia eskaintzeko.


Bestelako ekimen batzuk ere egingo dira datozen egunotan herrian (ikus ale honen kontrazala). Ohiko bideetatik iragarriko dira jarduerak guztiak.

Deba eta Reus arteko topaketa, apirilean

Datorren apirilaren 7, 8 eta 9an Deba eta Reus herrien arteko topaketa egingo da, Reusen (Katalunia), eta Debatik autobusean egingo dute joan-etorria herriko hamarnaka lagunek. Debako Gazte Asanblada eta Debarock kolektiboarekin elkarlanean, ekimena Reuseko Euskal Komisioak antolatu du; euskaldunetz eta katalanez osatutako taldea da, eta bi lurraldeetako kultura landu eta ezagutaraztea bilatzen du. Horretarako, ekintza ezberdinak antolatu nahi ditu eta horren adibide izango da apirileko topaketa. Egitarau anitza prestatu dute asteburu horretarako: tour historiko-politiko Reusetik, Castell tailerra, bazkari herrikoia, musika kontzertuak...

Enplegu bulegoaren behin-behineko itxiera

Azken bi urteotan funtzionamenduan egon ostean, enplegu bulegoa itxi egin dute. Debako Udalak azaldu du behin-behineko itxiera bat dela eta arrazoi nagusia "Lanbideren diru-laguntza deialdien atzerapena" dela. "Nolanahi ere -argitu du-, finantziarioa lortu bezain laster, bulegoa irekitzeko asmoa daukagu". Ordura arte, lan-bilaketarako zerbitzu hori erabiltzeko interesa dutenek Lanbidek Elgoibarko Arregi torre kaleko 6 zenbakian duen bulegora jo beharko dute.



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Entresena Registrada Nº 21/05/049
NIVEL 2

“Denok amesten dugun biharko Itziarren oinarriak eraikitzen ari gara”

Burugorri gunearen bigarren solairu eraberritua aurkeztu da auzo udalaren eraketaren bigarren urteurrenean

Ospakizun eguna izan zen martxoaren 12a Itziarren. Bi urte pasatxo dira Itziarko auzo udala eratu zela eta hori dela-eta, azken hilabeteotan lanean aritu da Itziarko batzorde eragilea Burugorri eraikinaren bigarren solairua atontzen eta erabat eraberritzen, eta martxoaren 12an burutu zen aurkezpen ekitaldia.

Maidar Lopetegi juntakideak azaldu zuen pixkanaka-pixkanaka ari direla lanean eta Burugorri gunearen bigarren solairua aurkezteak garrantzia berezia duela. “Ez da eraikin huts bat, guretzat eraikina baino gehiago izango da. Izan ere, erabilera herrikoia emateaz gain, bizilagunek zerbitzu eta ekitaldietarako areto erabilgarriago bat edukitzeaz gain, Itziarko Auzo Udala kudeatzen duen taldearen bilgune izango da. Horrek esan nahi du denok amesten dugun biharko Itziarren oinarriak hor bertan eraikitzen hasiko garela, eta hori guretzat handia da”.

“Itziarren oinarriak jartzen ari gara lana modu sistematikoan egiteko, lan eraginkorra izateko: plangintzak aztertu eta borobilduko dituen, administrazioaren zirikituetatik laguntzak eskuratuko dituen, herrigintza egiteko, guztion artean Itziar hobea, justua eta solidarioa egiteko. Itziarko Auzo Udalaren babesean guztiok ongi bizi gaitez, asebeteta bizi gaitez, lan mardula dago oraindik egiteko, bi urte besterik ez dira pasatu eratu zenetik eta urte asko ditugu aurretik”, esan zuen Lopetegik.

Azkenik, juntakideak nabarmendu zuen etengabe ari direla lanean, urrats txikiak egiten, urrats xumeak, baina beti aurrerantz.



“Burugorriko bigarren solairuaren proiektu txukun eta bideragarria idatzi genuen, eta horregatik bigarren solairua oso modu onean atontzeko diru-laguntza eskuratu dugu. Meritua ere bada Eusko Jaurlaritzarena, gurekin izan duen portaeragatik”.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke aretoaren eraberritzea eta hori dela eta gonbidatu berezia izan da Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikarako sailburuordea. Orozek ere hitza hartu eta esan zuen “begi onez” ikusten duela Itziarko Auzo Udalaren esperientzia. “Iragana izan duen bezala, etorkizuna” izango duela ekimenak eta Jaurlaritzak “ahalegin berezia” egiten duela “landa eremuko herri txikien alde”.

Eusko Jaurlaritzako ordezkarienez gainera, Debako hainbat zinegotzi ere hurbildu ziren ekitaldira.

Itziarko Auzo Udala

Ekimen ezberdinak martxoaren 8aren bueltan

“Begirada anitzetik berdintasunerantz” lelopean, hamarnaka lagun bildu ziren martxoaren 8ko elkarretaratzean. Ez da, ordea, aurten Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatu den ekimen bakarra. Martxoaren 3tik 24ra bitartean, hain zuzen ere, jarduera ezberdinak antolatu dira herrian: ipuin kontaketa heldu, gazte eta haurrentzat, dantza mugimendu terapian oinarritutako tailerra, hitzaldiak...



ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

2017ko martxo
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua

BERRIKETAN GAZTEA

Zumalakarregi museoan eta Igartubeiti baserrian bisitan

Pasa den otsailaren 2an, 4. mailako ikasleek irteera pedagogikoa eduki zuten. Ormaiztegiko Zumalakarregi museoan eta Ezkioko Igartubeiti baserria ikustera joan ziren.

Lehenengo Ormaiztegiara joan ziren. Bertan, ikasleak bi taldetan banatu ziren: talde bat museoan ikustera joan zen, eta bestea burdinazko zubia.

Museoaren ardatza Tomas Zumalakarregi jeneral karlista bada ere, XIX. mendeko Gerra Karlisten inguruko informazioa aztertu zuten. Horretarako, DBHko ikasleentzat prestatuturik zeuden fitxa didaktiko batzuk bete zituzten ikasleek.



Bitartean, beste taldea Ormaiztegiko burdinazko zubia ikustera joan zen. Bertan, gida batek zubiaren historia eta ezaugarriak azaldu zizkien ikasleei.

Ormaiztegiko bisitaldia amaitu ostean, Ezkiora joan ziren Igartubeiti

baserria ikustera. Han ere bi taldetan banatu ziren ikasleak. Talde bat Interpretazio Zentroan abiatu zen eta bestea, berriz, baserria.

Interpretazio Zentroan, euskal baserriaren historia, ezaugarriak, erabilera eta bilakaera erakutsi zizkieten.

Baserrian, kanpoaldean, XVI. mendeko zurezko arkitekturaren ereduak ikusi zuten. Barrualdean, ikasleek garai hartako giroa, altzairuak eta tresnak ezagutzeari gain, mende hartako habe luzeko dolare bat ikusteko aukera izan zuten (irudian ageri da). Eta, bide batez, garai hartan sagardoa nola egiten zen ikasi zuten.

Adimen urritasunari buruzko hitzaldia Mendatan

Otsailaren 15ean, adimen urritasunari buruzko hitzaldi bat izan zuten 1. mailako ikasleek. Orientazio mintegiak antolatuta. Hitzaldi hau goizeko bigarren, hirugarren eta laugarren orduetan izan zen. Atzegi elkarteak Naroa Artola kideak eman zuen hitzaldia.

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako erakundea da Atzegi eta, horrez gain, familien elkar-etea ere bada. Erakunde horren lana da adimen urritasuna duten pertsonak bakarrik ez sentitzea, beste esperientzia batzuk bizitzea, elkar laguntzea...

Hainbat urritasun mota daudela azaldu zuten:

- 1.- Urritasun fisikoa.
- 2.- Urritasun sentzoriala: zentzumeni (entzumena, ikusmena, ukimena,



usaimena, dastamena) eragiten diena.

3.- Adimen urritasuna: pentsatu, ikasi eta ulertzeko zailtasuna eragiten duena.

Urritasun hauek dituzten pertsonak laguntza behar dute zenbait gauza egiteko, hala nola komunikatzeko, lagunak egiteko, erabakiak hartzeko, bere burua zaintzeko, arriskuak saihes-

teko eta lekuetan orientatzeko. Eta pertsona hauei laguntzeko ingurunea oso garrantzitsua da, hau da, lagunak, familia, ikasleak, irakasleak... Guztiok desberdinak eta berdinak gara, denok behar dugulako ingurune positibo bat. Hori lortzeko, ezin diegu barre, burla egin edo bakarrik utzi, gu bezalakoak ez direlako.

Gizartea kontzientziatzeko, kanpainak egiten dituzte urtero; aurtengoa "#kaleatzegizale" lelopean egin dute.

Atzegikoek erakundeari buruzko informazioa zabaltzeko web orri bat dute eta bertan bideo asko dituzte. Adimen urritasuna duen pertsona bati lagundu nahi badiogu, atari hori kontsulta dezakegu eta ATZEGIko kideek informazio gehiago emango digute.

ELKARRIZKETA

UNAX ARRIZABALAGA:

**“Hiru bandera
irabazi genituen
iaz”**



Oraingo honetan, bigarren mailako Unax Arrizabalaga ikasleari egin diogu elkarrizketa. Arraunean aritzen denez, kirol horri buruzko galderak egin dizkiogu. Hona hemen gure galderak eta haren erantzunak:

Non egiten dituzu entrenamenduak?

Zumaian entrenatzen naiz, Urola ibaian.

Zenbat urterekin hasi zinen kirol honetan? Zergatik?

12 urte nituela hasi nintzen, iaz, futbola utzi nuelako.

Zu bakarrik joaten zara Debatik?

Infantilekin ibiltzen naiz eta Debatik Ganizekin joaten naiz.

Zein postutan aritzen zara?

Hankeko aritzen naiz (patroiaren atzean). Lehengo urtean, berriz, patroia nintzen.

Txapelketetan parte hartzen duzue?

Bai, estropadetan.

Zure taldeak irabazi al du noizbait txapelketaren bat

edo koparen bat?

Hiru bandera irabazi genituen lehengo urtean. Gipuzkoako Liga, Euskadi eta Espainiakoan laugarrenak gelditu ginen.

Zer nolako entrenamenduak egiten dituzue?

Denetik egiten dugu. Adibidez, gimnasia joaten gara, korrika egiten dugu...

Astean zenbat entrenamendu izaten dituzu?

Astean hiru egunetan egiten ditugu entrenamenduak, astearteetan, asteazkenetan eta ostiraletan (17:30ean).

Gogorak al dira entrenamenduak?

Batzuetan bai.

Gomendatuko al zenioke norbaiti kirol hau?

Bai, denei.

SEXU HEZIKETARI BURUZKO IKASTAROA

Mendata ikastetxeko hirugarren mailako ikasleek Sexu Heziketari buruzko ikastaroa izan zuten joan den hilabetean. Gai hori hartu dugu hizpide ale honetako inkesta egiteko:

- 1.- Zer iruditu zaizu sexu heziketa tailerra?
- 2.- Zerbait gehiago ikasi duzue?
- 3.- Gustura egon zara?
- 4.- Ikasitakoa praktikan jartzeko asmoa duzue?
- 5.- Zer jolas gustatu zaizu gehien?
- 6.- Halako ikastaroak egitea beharrezkoa dela uste duzue?



**Ane
Txurruka**

- 1.- Ondo.
- 2.- Bai, noski.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai, aurrerago.
- 5.- Begiak tapatzearena.
- 6.- Bai, beti dator ondo honi buruz zerbait gehiago ikastea.



**Josu
Salegi**

- 1.- Ez zitzaidan asko interesatu.
- 2.- Ez.
- 3.- Baliteke.
- 4.- Noski baietz.
- 5.- Mimikaren jolasa.
- 6.- Ez.



**Ibai
Ponce**

- 1.- Besterik gabe.
- 2.- Besterik gabe.
- 3.- Bai.
- 4.- Ahal badut bai.
- 5.- Bat ere ez.
- 6.- Ez.



**Xabi
Larrañaga**

- 1.- Ez zitzaidan asko interesatu.
- 2.- Ez.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai.
- 5.- Mimikaren jolasa.
- 6.- Ez.



**Jon
Txurruka**

- 1.- Ez dago gaizki.
- 2.- Oso gutxi.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai.
- 5.- Mimikaren jolasa.
- 6.- Ez asko.



**Jone
Gomez**

- 1.- Besterik gabe.
- 2.- Bai, zertxobait.
- 3.- Baliteke.
- 4.- Bai.
- 5.- Mimikaren jolasa.
- 6.- Ez, baina ondo dago.




**Maite
Ramos**

- 1.- Ondo.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Gauza batzuk.
- 5.- Begiak tapatzearen jolasa.
- 6.- Bai, gauza gehiago jakiteko.


**EGILEAK: Janire Lopetegi, Maider Almortza,
Maria Perez eta Urko Azkoitia**

DENBORA-PASAK

EZBERDINTASUNEN BILA



LABIRINTOA



TXISTEA



SUDOKUA

		9		3		1	8
			6	9		7	
		8		7			2
	7		5				
		3		1		6	
					7		5
	9			5		2	
		2		3	1		
6	8		2			3	

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2016-2017

Urko Azkoitia
Maria Perez
Maite Ramos
Nerea Sanz
Intza Sudepe
Eneko Arriola

Jone Gomez
Janire Lopetegui
Eider Perez
Irene Ruiz
Maider Almoriza
Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

MARTXOAK 25, LARUNBATA

-13:00. **Korrika:** peto eta arropa salmenta, plazan.
-13:30. **Emakumeen I. Debako Saria**, txirindularitza proba.

MARTXOAK 31, OSTIRALA

-18:00. **Zuhatza Euskara Elkartearen Urteko Batzarra** (Ifar kaleko bulegoan).
-19:00. **Liburu aurkezpena:** "Mis nombres propios" (Jose Angel Romano Perez). Ispiluen gelan.
-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

APIRILAK 1, LARUNBATA

Korrika kulturala:

-12:00. **Aitzuri** abesbatza, plazan.
-13:00. **Txistulariak**, plazan.
-17:00. **Anes Arrinda haur krosa**, zumardian.

APIRILAK 2, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Elorrixa (Maruko errekatik)-Itziar-Deba.

APIRILAK 4, ASTEARTEA

-15:15. **KORRIKA txikia.** Ondoren, txokolatada.

-19:00. **Kalean Kantuz**, kaleetan zehar.

APIRILAK 5, ASTEAZKENA

-8:35. **KORRIKA OFIZIALA.** Sasiolan hartuko dugu lekukoa.

APIRILAK 7, OSTIRALA

-22:00. **Monologoa:** "Monolokos" (Maribel Salas eta Iñigo Salinero), Kultur Elkartearen *Debako Udalak eta Kultur Elkarteak elkarlanean antolatutako kultur programazioaren baitan hilean behin egingo den ekimenetako bat.

APIRILAK 8, LARUNBATA

-13:00. **Barra klasikoaren erakustaldia**, Arrantzale kalean (Dantzaren Nazioarteko Eguna).

APIRILAK 9, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Urdiain-Urbasa-Balcón de Pilatos-Baquedano.

APIRILAK 13-17

-Aste Santua.

APIRILAK 23, IGANDEA

-**Liburuaren Eguna** (ekitaldi ezberdinak...).

Ikastaroak KZgunean

KZguneak goizeko ordutegia izango du martxoan (09:00-13:00) eta arratsaldekoa apirilean (16:00-20:00). Hainbat ikastaro eskainiko dira: argazki ukitua Gimp erabiliz, Google Drive, Wikipedia, doako antibirusak... Informazio gehiagorako: www.kzgunea.eus edo 943 02 36 29 telefono zenbakia.

Lan eskaintza

Turismo bulegoko harrera eta komunikaziorako administrari laguntzaile en lan-poltsa berria eratu du Debako Udalak. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 28an bukatuko da. Deialdiaren oinarriak eta bestelako informazioa: www.deba.eus atarian.

Lehiaketa

"**Instant1ean**" Instagrameko lehiaketaren II. edizioa abiatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 13-17 urte bitarteko nerabe gipuzkoarrei zuzenduriko ekimen honen helburua irudi baten bidez norberaren bizitzako instant bat azaltzea da. Sari ugari daude jokoan eta maiatzaren 7ra arte eman daiteke izena lehiaketan. Informazio gehiagorako: www.deba.eus edo www.gipuzkoangazte.eus.

Ordutegi berezia Ostolaza Udal Liburutegian

Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du Aste Santuan. Apirilaren 10, 11 eta 12an goizez eta arratsalde zabalduko da, ohiko ordutegian. Apirilaren 18, 19, 20 eta 21ean, berriz, goizez egongo da zabalik: liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara, eta haur liburutegia 10:00etatik 13:00ak arte.



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS:183/12



ZAINZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **apirilak 1, 2, 10, 11, 12, 13.**

Burgoa Zuazo: **martxoak 27, 28, 29, 30.**
apirilak 14, 15, 16.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:
ZALDUEGI: apirilak 1 eta 8
BURGOA ZUAZO: martxoak 25 eta apirilak 15/22

9:30 - 13:30




Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



English Academy
NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua


Lernudi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatza.com

**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818




MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



BATZUK

20. ^{gek}korrika

2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra
OTXANDIOTIK IRUÑERA

Badator Korrika!!!

APIRILAK 1, LARUNBATA

- 12:00. Aitzuri abesbatza, plazan
- 13:00. Txistulariak, plazan
- 17:00. Anes Arrinda haur krosa, zumardian

APIRILAK 4, ASTEARTEA

- 15:15. Korrika Txikia. Ondoren, txokolatada
- 19:00. Klean Kantuz, kaleetan zehar

APIRILAK 5, ASTEAZKENA

- 08:35. Korrika Ofiziala iritsiko da Debara. Sasiolan hartuko dugu lekukoa, gero herria zeharkatzeko. Lasterketak Mutriku aldera jarraituko du gero. Txistulariek alaituko dute goiza



www.aek.eus
www.korrika.eus



Debako Korrika Batzordea